

BAKETIK-EN ALDI BERRI
BATERAKO ONDORIOA

«Aldaketa pertsonalerako
eta sozialerako indar nagusia
bultzatzea: hautatzea etika
izanik abiapuntu»

DINAMO
E
E
E
EKTUA

AUZKEZPENA

2006ko urriaren 14an azaldu zen lehenbizikoz jendaurrera Baketik, Arantzazun (Oñati). Elkarrizketaren eta akordioaren aldeko Elkarriz mugimenduan jardunak ziren erakunde berriaren sortzaileak, eta Arantzazuko Santutegiko Frantziskotarren bultzada ere izan zuen. Frantziskotarren erabakiz Arantzazun izango zuen egoitza elkarte berriak, eta erakunde autonomoa, laikoa eta akonfesionala behar zuen izan, plurala eta irekia.

Gatazken lantze etikoa bultzatzeko zentro gisara jaio zen Baketik, eta bi kontzeptu hauen uztarketa zuen oinarri: bakea eta etika. Halaxe dio izenak berak: **baketik**, bakea eta etika. Oinarri hauetatik hazi eta aldatu egin zen. 2011ko urrian, bere bosgarren urteurrenarekin bat eginik, «Baketik berrabiarazi da» adierazpena aurkeztu zuen.

Txosten hark urte beteko prozesua zabaltzen zuen Baketik-eko egitasmoaren definizio berria lantzeko. Bere edukiak gogoeta horren abiapuntuak ezartzen zituen bi erreferentziaren ondoan: egungo krisi orokorra eta ordura arte Baketik-ek egin-dako ibilbidea.

Urte hau igaro ondoren, trantsizio-prozesua agiri berri batekin amaitzen da. Izenburuak bere ondorio nagusia laburbiltzen du: «aldaketa pertsonalerako eta sozialerako botere nagusia bultzatzea: hautatzea etika izanik abiapuntu». Metafora bat erabiltuta, Baketik-ek «dinamo efektua» izena jarri dio aldaketa-indar horri. Horrela, energiaren eraldaketa-mekanismo horrek ematen dio izena zentro honek bultzatuko duen egitasmo nagusiari: «Dinamo Proposamena».

EGITASMO HORI ETA ORAIN ZABALTZEN ARI DEN ALDI BERRI HORI HIRU USTE SENDOETAN OINARRITZEN DIRA ETA HORIEK BAKETIK-EKO PRINTZIPIOAK OSATZEN DITUZTE. BERE ERAIKUNTZAREN ZIMENDUAK DIRA:

- Itxuraz inperfektuak diren zoriontasunaren eta justiziaren esku-bidea. Inongo gizakia ez dago aurrez baldintzatua zoriontasunik eza kronikoa pairatzera, inongo gizarterik ez dago kondenatua bidegabekeria menderaezina pairatzera.
- Hobetzea eta aldatzea aukeratzeko ahalmena. Personek eta gizarteek hobetzeko eta euren errealitatea berriz ere eraikitze ahalmena daukate giza duintasunaren garapenean eta osotasunean.
- Bizitza zentzua duen aukerara zabaltzeko bidea. Bizitza pertsonala hobetzeko eta mundua hobetzeko erabakiak balio materiagabeetara zabaltzea dakar eta bizitzari zentzua emateko ibilbidea ahalbidetzen du.

Printzipio horiek oinarri hartuta, txosten honek Baketik-eko azterketa berreraikitzen, xedea birkokatzen eta bere lanaren programa berrantolatzen du. Bi zati ditu: Baketik-eko gogoeta eta Baketik-en egitekoa. Lehenengoan, inguratzen gaituen testuinguruarekiko Baketik-eko begirada aurkitzen dugu. Bigarrengoan, errealitatearekiko konpromisoa aurkitzen dugu. Helbururik xumeanean jartzen du arreta: baldintzak sortzea.

A. BAKETIK-EN PROPOSAMENA

Krisi hitzak zeharkatutako garaia bizitzen ari gara. Baketik-ek munduaren egungo egoerari begirada kritikoa eskaintzen dio. Ez da azterketa itxia irekia baizik. Modu sintetikoan esanda sakontasunera eta ñabardurara zabalik dauden azterketa-giltzarrien bidez adierazten da. Etapa berri honetan Baketik-ek hasiko duen ibilbideak azterketa honen eta bere alternatiben esploraziorako baliagarria izan nahi du.

1. AZTERKETA KRITIKOA

1.1. SINTOMA: KRISIA

Pertsonak, gizartea, sistema eta mundua orientabide-krisi batean nahastuak gaude. Bere eremua ez da murriztu behar ekonomia-, finantza- edo zor-krisiaren ondorioetara. Zehazki, hau ez da erabatekoa, partziala baizik; munduaren alde aberatsari eragiten diotelako bereziki. Beste krisi handiago baten parte da.

Gizarte- eta garapen-ereduen eta bizitzeko eta elkarbizitzarako moduen krisi integrala da. Egungo errealitatearen sintoma nabarmena da eta arrisku serioak dakartza. Kolapso ekonomikoa, soziala, belaunaldikoa, ekologikoa, energetikoa, migrazioa, elikagaiena, nuklearra edo militarren hipotesia baztertu ezin den norabidean goaz aurrera.

1.2. DIAGNOSTIKOA: NAHASMENA

Sintoma hau esplikatzen duen diagnostikoa baloreen nahasmena da. Humanismoaren printzipioak, altruismoaren zentzua edo errealitate materiagabeak estimatzea ekonomizismoaren edo indibidualismoaren tesien menpean geratu dira. Erabilgarria dena eta berehalakotasuna nagusitzen dira, interes partekatua desagitzen da; eta kontsumismoa —desio indibidualaren eraman gutxiko asebetetzea— guztiaren motore bilakatzen da.

Garrantzitsua eta osagarria nahasi egiten dira, batak bestea ordezkatzen du. Emaizta antsietate eta frustrazio nahasketa bat da. Bizitza modu materialean kontrolatuz zorientasuna lortzeko antsietatea, eta frustrazioa itxaropen faltsu horrekin topo egiten duenean. Pertsonak zorientasuago egiten ez duten eta giza-harremanak, sozialak edo nazioartekoak bidezkoagoak egiten ez dituen emaitza. Aldiz, krisi-, zalantza- eta arrisku-testuinguruan kokatzen gaitu.

1.3. ARRAZOA: IDEOLOGIA

Nahasmen horren eta horrekin batera datorren krisiaren arrazoi nagusia indibidualismo materialistena ardatz duen zorientasunaren ideologiaren nagusitasun orokorra da. Ikuskera hau sistema politikoaren, eredu sozioekonomikoen eta gara-

pen-ereduen oinarrian dago. Emaizta sistema bidegabea eta kolpasorako joera duena da.

Zorientasun egoistaren ideologia berdina bizitzeko eta elkarbizitzarako moduen funtsean dago. Geure pentsamoldeetan itsasten da eta herritar bakoitza, neurri batean, borondatez edo nahi gabe, bere eragile bilakatzen da. Zorientasun indibidualistaren itxaropen horrek gizatasuna kendu eta bizitzaren zentzua desorientatu egiten du.

1.4. TRATAMENDUA: ALDAKETA PROZESU GISA

Premiazkoa eta garrantzitsua da gizarte- eta garapen-eredu berriak sustatzea eta bizitzeko eta bizikidetzarako eredu berriak bultzatzea. Aldaketa behar dugu; baina aldaketa hori ez da soilik soziala edo politikoa edo ekonomikoa, ez eta soilik pertsonala edo puntuala ere. Aldaketa pertsonala eta soziala behar da, betiere abiapuntu bezala etika izanik.

Hala ere, ez dago formula magikorik. Inork ez daki segurtasun osoz zein den alternatiba. Itsu-itsuan gabiltza. Zintotasunez aitortu behar dugu. Horregatik behar dugu zentzu- eta orientabide-esparru fidagarria zentzuzko aldaketa-prozesua egiteko. Esparru horrek erreferentzia-puntu fidagarriak eskaintzea beharrezkoa dugu.

2. ARDATZ ERAIKITZAILEAK

Alternatibak eraiki behar ditugu, eraiki nahi ditugu eta eraiki ditzakegu. Etikoena ez ezik pragmatikoena ere bada. Ez daukagu ziurtasunik, ez eta asmatzeko bermerik ere; baina erreferentzia-puntu sendoak eta fidagarriak identifika ditzakegu. Esparru horretan kokatzen da Dinamo Proposamena, eraldaketa pertsonalerako eta sozialerako efektua bultzatzea eta partekatzea biltzen duen ideia. Proposamen hori Baketik-eko jarduera guztia antolatzen duen ardatza da. Hurrengo urteetarako zentro honen egitasmo orokorrari izena ematen dio.

Dinamo energia mekanikoa energia elektrikoan eraldatzera zuzendutako tresna da. Zenbait hamarkadetatik hona, esate baterako, bizikletek argia edukitzea ahalbidetzen du txirrindulariak

DINAMO PROPOSAMENA

**PERTSONA, ERAKUNDE ETA
GIZARTE MAILAKO ALDAKETA
BATERAKO**

pedalei eragiteari etekina ateraz. Proposamen honek «Dinamo» izena hartzen du antzeko mekanismoa artikulatzea proposatzen duelako. Bereziki, giza energia aldaketa sozialerako energian eraldatzea iradokitzen du.

Oinarrizko energia hori pertsonak, etika izanik abiapuntu, hautatzeko duten boterea da. Ideia horretan ez dago arrazonomendua soilik, batez ere bizipen baten proposamena baizik. Esperientzia etiko hori da aldaketarako indar nagusia. Geure aukera da. Hitz zehatz batean irudikatzen da: elkartasuna. Hori da energia ordezkaria, maila pertsonalean eraldatua eta gizarte mailan eraldatzailea.

Konpromiso pertsonalizatua eskatzen du, pedalei eragin behar zaie. Hala ere, ez da soilik ekintza indibiduala. Dinamo Proposamenaren xedea komunitatearena da. Bere helburua alternatiba sustatzea da, ardurak partekatuko elkartasun-eredua. Horregatik, prozesu honen oinarriak partekatu behar ditu pertsona, erakunde eta gizarte mailako aldaketa-sinergia ahalbidetzeko. Oinarri horiek ondorengo puntu hauetan laburbiltzen dira.

2.1. OINARRIZKO ENERGIA: GIZA DUINTASUNAREN ETIKAREN ESPERIENTZIA

Dinamo Proposamena giza duintasunaren etikaren esperientzian oinarritzen da: lehendabizi maila pertsonalean eta ondoren modu partekatuan. Gizakia helburua da eta ez bitartekoa. Hautatzeko gaitasuna dauka. Errespetatzea eta sustatzea merezi du. Eskubideak eta erantzukizunak ditu. Lehen pertsonan geure buruaz egiten dugun edozein murrizketa baino gehiago gabela ulertzea esan nahi du.

Besteenganako eta gizartearekiko, etika horrek etiketarik ez jartzea esan nahi du eta geure erantzukizun-kuota onartzea justizia eraikitzerakoan. Bizikidetzan eta gatazketan, pertsonaren nagusitasuna eta bere giza duintasunaren balio gorena ulertzea da. Praktikan, pertsonaren autonomiarekiko konpromisoa da. Filantropiarekin eta gizakiarekiko eta gizadiarekiko maitasunarekin lotura sakona da. Bizitzea merezi duen bizitza baten eta mundu zibilizatu baten motorea da.

2.2. PEDALAK: ASKATASUNA ETA HAUTATZEKO ERANTZUKIZUNA

Egitasmo honetarako oinarrizko energia giza duintasunaren etikaren esperientzia pertsonalizatuan dago. Energia horrek eraldatua izatea behar du. Dinamo hau eragiten duten bi pedalak askatasuna eta erantzukizuna dira. Askatasuna era batera edo bestera eragiteko eta norabide zehatz batean bideratzeko ahalmena da. Kasu horretan, beharrari, pairamenari edo bidegabekeriari erantzuteko borondate askearekin du zerikusia.

Erantzukizuna eragiten gaituen errealitatearen ondorioak nor bere buruaren gain onartzeko gaitasuna da. Kasu horretan, dagokigun kuota onartzea mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzeko beharrarekin lotuta. Askatasuna eta erantzukizuna dira pertsona, erakunde eta gizarte mailako aldaketa-indar nagusiak: etika hartuta abiapuntu hautatzea. Geure botere nagusia da hauta dezakegula. Horretarako askeak eta ardurasuak gara.

2.3. ENERGIA ORDEZKARIA: ELKARTASUNA IRIZPIDE GIDARI GISARA

Giza duintasunaren etikaren esperientzia pertsonala oinarrizko energia da. Askatasunaren eta erantzukizunaren pedalekin, energia hori elkartasuna hautatzeko aukeran eraldatzen da. Bere energia ordezkaria da. Gauzak horrela, beharraren, pairamenaren edo bidegabekeriaren aurrean, elkartasuna atxikipen libre eta arduratsua da. Elkartasunaren arazoa, soilik, hitz hutsa izatea da.

Arrisku hori ekiditeko, Dinamo Proposamenak pertsona, familia, erakunde, enpresa, gizarte eta politika mailako erabakien irizpide gidaria eskaintzen dio elkartasunari. Horrek esan nahi du edozein erabaki-prozesu arautzen duen balio gorena dela. Balio gorena da askatasunarekin eta erantzukizunarekin aukeratzeko dugulako horrela izatea. Horrela ulertua, elkartasuna pertsonalizatu eta prozesu partekatua egiten da.

Elkartasuna irizpide gidaria da lau arrazoirengatik. Bat, gizakiaren berezkoena da, enpatiarako dugun gaitasunetik jaiozen da. Bi, zibilizatuena da, bulkada berekoi hutsa baino zer-

bait gehiago izatea ahalbidetzen digu. Hiru, bideragarriena da, ahalik eta pertsona gehienentzat ona izatea lortzen duen sistema da onena. Eta lau, geure esku dago, elkartasuna hauta dezakegu.

2.4. HELBURUA: BERE ONDORIOEZ ARDURATZEN DEN EREDUA

Dinamo Proposamenak gizarte- eta komunitate-bokazioa dauka. Ardurak partekatzeo elkartasun-eredu baterantz bideratzen da. Eredu hau, alternatiba-bokazio gisa, bere jasangarritasunaz arduratzen ez den eta zoriontasunaren ideologia materialistean eta egozentrikoan oinarritzen den hazkunde mugagabeko sistema baten aurrean kokatzen da. Bere ondorioez arduratzen den garapen- eta hazkunde-eredu pertsonala eta soziala bultzatzen du.

Eredu horren arabera, haztearen, txikitzearen eta mantentzearen arteko aukera elkartasunaren irizpidearen arabera erregulatzen da. Ez da atxikitzen zoriontasunaren ideologia egoentriko batera. Lankidetzan oinarrituta bizitzeko eta elkarbizitzeko etika bat du funtsean non partekatzea ez den baldintza nahikoa baina bai beharrezkoa zoriontasun pertsonalari eta bizikidetzako zoriontasunaren zentzuari zein jasangarritasun sozialari begira. Aldaketa pertsonala eta erakunde eta egitura mailako aldaketa integratzen ditu.

Iradokizun honek ez du ezer asmatzen, beti hor egon den aukera eguneratzen du. Hala ere, ardurak partekatzeo elkartasun-eredu batek galtzeko beldur irrazionala eragiten du. Pentzamolde aldaketa behar dugu: garaiz gogoratzea «hauta dezakegula». Ez gaude kondenatuak aukera bakar batera. Egoismo bulkada edo galtzeko beldurra baino zerbait gehiago gara. Elkartasunaren bizi-etika soziala, ekonomikoa eta politikoa hauta dezakegu.

2.5. MEKANIKA: XEDE SOZIALA LAU GALDEREN BIDEZ DEFINITZEA

Elkartasunaren irizpide gidaria eraginkor egiteko eta bizitzeko modu berriak eta gizarte eredu berriak sustatzeko mekanika pertsona edo erakunde bakoitzaren xede soziala definitzea eta aurrera eramaten saiatzea da. Xede sozial hori definitzeko metodoa lau galderari erantzutea da. Modu laburrean adieraziak ondorengoak dira: zertan mugatu behar dut neure burua, zertan oinarritzen naiz, zer dagokit eta zertan saiatzen naiz mundua hobetzen.

Galdera horiek, garapen desberdinekin erabilera eremuen arabera, Dinamo Proposamena egituratzen dute. Ardurak partekatzeo elkartasun-eredurako «protokolo» baten oinarria osatzen dute. Galdera horiek pertsona, erakunde eta gizarte mailan

aldaketarako dugun botere nagusiaren aurrean kokatzen gaituzte: hautatzea etika hartuta abiapuntu. Elkartasuna hauta dezakegun eta egoera zehatzetan aplikatutako berariazko erantzunetan islatzen den aukera bilakatzen da.

Pertsona da abiapuntua. Pertsona bakoitza da pedalei eragiten diena bere energia pertsonala aldaketa sozialaren indarrean eraldatzeko. Dinamo Proposamenak tximeleta efektu anizkoitza bilatzen du. Baina ez da bat-batean egindakoa jakinaren gainean bultzatua baizik. Gauzak horrela, pertsonak orientabide-erreferentziak dituen ikaskuntza behar du. Horretarako, Dinamo Proposamena Bizizikasi pedagogian babesten da.

2.6. EMAITZA PRAKTIKOA: ERABAKIAK ETA PROIEKTU ZEHATZAK

Lau galdera horiek erantzunez pertsona edo erakunde bakoitzaren xede sozialaren definizioak eredu hori elkartasunaren aldeko asmo oneko apelaziotik haratago joatea ahalbidetzen du. Bi eragin zehatz ditu. Alde batetik, galdera horien erantzun-prozesuak pertsona, familia, erakunde, enpresa edo instituzio bakoitzaren berezko funtzioa birplanteatzen lagunduko du.

Bestetik, erantzun horiek erabaki zehatzetan irudikatuko den justiziaren eta elkartasunaren helburuari ekarri arduratsua erantsen bilatuko dute. Horrela eratuko da Dinamo Proposamenean EKG edo elkartasunezko konpromiso gehigarri gisa izendatzen dena. Elkartasun konpromiso pertsonala erakunde, egitura eta gizarte mailan aldaketarako egitasmo partekatua eta komunitarioa bilaka daitekeen eremua izango da.

DINAMO PROPOSAMENA

PERTSONA, ERAKUNDE ETA GIZARTE MAILAKO ALDAKETA BATERAKO

AZTERKETA KRITIKOA

Krisi puntuala baino zerbait gehiago

Krisi integral baten aurrean gaude. Mugarik gabeko eta bere ondorioen erantzukizunik hartu ez duen eredu baten emaitza da. Bere jatorrizko sorburua indibidualismo berekoienean eta materialistenean oinarritutako zoriontasunaren ideologia da. Ikusmolde hori sistema politikoaren, eredu sozioekonomikoen eta garapen-ereduen oinarrian egongo da; baita bizitzeko eta bizikidetzarako moduetan ere. Emaitza sistema bidegabea eta kolapsora jotzen duena da. Pertsona, erakunde eta gizarte mailako aldaketa beharrezkoa da.

OINARRIZKO ENERGIA

Giza duintasuna

Ez da argudioa soilik. Bizipena da. Gizakia helburua da eta ez bitartekoa. Hautatzeko ahalmena dauka. Errespetua merezi du. Bere buruaz egiten duen edozein murrizketa baino gehiago da. Pertsonaren nagusitasuna eta bere duintasunaren balio gorena ulertzea da. Pertsonaren autonomiarekin eta justizia sozialarekin konprometitzen du.

PEDALAK

Askatasun printzipioa

Beharrari, pairamenari edo bidegabekeriari borondatez erantzuteko aukera.

Erantzukizun printzipioa

Mundu bidezkoago bat eraikitzerako orduan horren parte bat onartzeko aukera.

Askatasunak eta erantzukizunak aldaketa pertsonalerako eta sozialerako indar nagusia osatzen dute. Askeak eta aduratsuak gara horretarako. Geure botere nagusia da hauta dezakegula.

ENERGIA ORDEZKARIA

Elkartasuna irizpide gidari gisa

Elkartasuna irizpide gidari gisa edozein erabaki-prozesu erregulatzen duen balio gorena da. Horrela ulertua, pertsonalizatzeaz gain prozesu partekatua bilakatzen da.

HELBURUA

Ardurak partekatzeko elkartasun-eredua

Haztearen, txikitzearen edo mantentzearen alternatiba elkartasunaren irizpide gidariak arautzen du. Ez da tinko atxikitzen zoriontasun materialistaren ideologiara, bizitza eta elkarbizitza kooperatiboaren etika batera baizik. Etika horretan partekatzea ez da baldintza nahikoa baina bai beharrezkoa zoriontasun pertsonalaren eta bizikidetzarako zoriontasunaren zentzuari zein jasangarritasun eta bideragarritasun sozialari begira.

MEKANIKA

Xede soziala definitu lau galderekin

Dinamo Proposamenaren mekanika pertsona edo erakunde bakoitzaren xede soziala definitzea eta aurrera eramaten saiatzea da. Horretarako metodoa lau galderari erantzutea da.

Zertan mugatu behar dut neure burua.

Zertan oinarritzen naiz edo zer bultzatzen dut.

Zer dagokit, zein da neure erantzukizuna.

Zertan saiatzen naiz mundua edo bizitza hobetzen.

XEDE SOZIALAREN EMAITZA PRAKTIKOA

Berezko funtzioan

Xede sozialaren lau galderen erantzunak eragina dauka horiei aurre egiten dien pertsonaren edo erakundearen berezko funtzioa berriz planteatzeko.

EKGn

(Elkartasun-konpromiso gehigarria)

Erantzun-prozesu horrek proiektu edo erabaki zehatzetan irudikatutako ekarri gehigarria definitzen du mundu bidezkoago baten alde.

B. BAKETIK-EN EGITASMOA

Baketik-ek ezin du ziurtatu munduaz egiten duen azterketan ez eta iradokitzen duen alternatiban ere asmatuko duenik. Bere proiektua ideia multzo horren zerbitzura jar dezake eta bere aukera-esparru murriztuan praktikara eramaten saia daiteke. Hori da egin nahi duena bere proiektu nagusiarekin, xede sozialarekin eta bere proiektu zehatzekin.

1. OINARRIAK

1.1. BAKETIK-EN DEFINIZIOA: ALDAKETA ETIKOAREN ZERBITZURA

Pertsona, hezkuntza, elkarbizitza, erakunde eta gizarte mailan eraldatze-prozesuak bultzatzen dituen fundazioa da, betiere etika dela abiapuntu. Prozesu horiek Bizizikasi Pedagogiarekin sustatzen dira. *Ardurak partekatze*ko *elkartasun-eredua* sustatzea helburu duen Dinamo Proposamenaren barruan kokatzen dira.

1.2. BAKETIK-EN IKUSPEGIA: ITXAROPEN ALTUA ETA HELBURU XUMEA

Itxaropenik altuena mundu hobeago eta bidezkoago baten alde egitea da. Helbururik xumeena geure esku dagoenarekin hori ahalbidetuko duten baldintzak sortzea da.

1.3. BAKETIK-EN XEDEA: ALDAKETA PERTSONALERAKO ETA SOZIALERAKO BOTEREA BULTZATZEA

Pertsona, erakunde eta gizarte mailan aldaketarako botere nagusia azpimarratzea, balioa ematea eta bultzatzea. Aldaketa pertsonalerako eta sozialerako «dinamo efektua» bultzatzea.

1.4. BAKETIK-EN HELBURUAK: PROIEKZIORIK ZEHATZENA

•Helburu nagusiak

·Bizizikasi pedagogiaren bidez, pertsona, erakunde eta gizarte mailan eraldatzerako zerbitzuak eta baliabideak eskaintzea, betiere etika dela abiapuntu.

·Bizitarako eta elkarbizitarako modu berriak eta gizarte-eta garapen-eredu berriak sustatzea, Dinamo Proposamena partekatuz.

•Helburu zehatzak

Bizizikasi pedagogia oinarri hartuta eta Dinamo Proposamenaren erreferentziarekin, Baketik-en helburu zehatzak ondorengo ardatzetan egituratzen dira:

·Pertsonen eta taldeen, betiere etika dela abiapuntu, bizitza eta bizikidetzaren hobetzen ikastera zuzendutako aholkularitza- eta formazio-zerbitzuak eskaintzea.

·Hezkuntza-munduari bizitarako eta elkarbizitarako hezkuntzara bideratutako pertsona izaten hezteko baliabideak eta zerbitzuak eskaintzea.

·Bake-prozesuaren esparruan, formazio-, zabaltze- eta aholkularitza-baliabideak eskaintzea bizikidetzaren eta berrakidetzaren kultura berria bultzatzeko.

·Enpresei eta erakundeei aholkularitza- eta formazio-baliabideak eta tailerrak eskaintzea, beren esku dagoena kontuan hartuta, zentzu-esparru eraldatzailea eratzeko.

·Erakundeei, enpresei, instituzioei edo entitatei bitartekaritza-zerbitzuak eskaintzea beren gatazkak etikoki lantzeko eta talde-lana hobetzeko.

·Baketik-eko xede soziala irudikatuko duten elkartasun-proiektuak garatzea konpromiso zehatzen bidez eremu desberdinetan.

1.5. BAKETIK-EN ZEHARKAKO ARDATZA: BIZIZIKASI PEDAGOGIA

Bizizikasi pedagogia Baketik-en sei urteko jardueraren ondorioa da. Bere premisa da pertsonak bere esperientzietatik ikasten duela hobetzen, batez ere oinarrizko lau esperientzietatik (izaera mugatua, esker ona, kontzientziari entzutea eta giza duintasuna), hiru instrumentaletatik (elkarrizketa, enpatia eta pazientzia) eta funtsezko batetik (maitasuna). Inoren laguntzarik gabe hobetzeko eta bere errealitatea berreraikitzeko ahalmena duen izakia da. Hauta dezake. Bere buruaz egiten duen edozein murrizketatik haratago joan daiteke ohi ez bezalako hiru aukera dituelako: kontzientzia, zentzua eta dohaintza propioa. Pedagogia hori da Baketik-eko proiektuak biltzen dituen ardatza.

2. BAKETIK-EN XEDE SOZIALAREN DEFINIZIOA

Dinamo Proposamenak, eta bere ardurak partekatzeko elkartasun-ereduak, pertsona, familia, enpresa edo erakunde bakoitzak bere xede soziala definitzea proposatzen dute galdera lau multzo eginez beren buruei: zertan mugatu behar dut neure burua; zertan oinarritu behar dut; zer dagokit; eta zertan saiatzen naiz mundua hobetzen. Atal honetan Baketik-eko xede sozialaren zirriborroa egiten saiatuko gara lau galdera horiek erantzunez.

2.1. NON JARTZEN DU MUGA BAKETIK-EK

Xumetasuna onartzen du nortasun-ezaugarri gisa. Baketik-ek ez du helburutzat dimentsio handirik, ezta jomuga elitistatik ere. Neurri zentzuzkoa eta jasangarria bilatzen du. Bere itxaropena ez da aldaketa lortzea horren alde lan egiten duen arren, hori ahalbidetuko duten baldintzak sortzea baizik. Jokatzeko modu neurritsu batera lotzen da: baliabide etiko erabilgarriak eta eskuragarriak eskaintzea eguneroko bizitzatik. Beti jende arrunta erreferentzia hartuta egiteko konpromisoarekin lotzen du bere egitasmoa.

2.2. NON OINARRITZEN DA BAKETIK

Partekatzeko erabakian. Elkarrekotasun-konpromisoa eskatzen du: ematen eta jasotzen jakitea. Emaille gisa, Baketik-ek daukana eskaintzen eta bultzatzen du: bere pedagogia, Dinamo Proposamena, ardurak partekatzeko elkartasun-eredua edo gatazkei aurre egiteko duen modua. Hartzaile gisa, une bakoitzean onena onenarekin lotzea bilatzen du: aurretik egindako edo besteek egiten dituzten ekarriak aintzat hartzea, eskertzea eta integratzea.

2.3. ZER DAGOKIO BAKETIK-I

Bere konpromisoak aukeratzea. Bere ibilbidea, mugak, posibilitateak, gaitasunak eta aukerak kontuan hartuz, Baketik-ek bere xede sozialaren lehentasunezko eremuak aukeratu behar ditu. Urrutira begira, ahaztutako gatazkei eta gatazka horietan ahaztuta geratu diren horiei buruz galdetzen dio bere buruari Baketik-ek eta Afrikaren aldeko aukera egiten du. Hurbilera begira, Baketik-ek azkenengoengatik galdetzen dio bere buruari eta babesik gabe dauden adingabekoen eta egoera zailetan dauden gizarte-kolektibo hurbilekoen aldeko aukera egiten du.

2.4. ZERTAN SAIATZEN DA MUNDUA HOBETZEN

Ardurak partekatzeko ideia bultzatzen du. Egiturazko aldaketa eta aldaketa pertsonala integratzen saiatzen da. Hori da energia pertsonala gizarte aldaketarako energian eraldatzen duen

dinamo mekanismoa. Pertsonak edo erakunde bakoitzak mundu bidezkoago baten aldeko bere erantzukizun parte onar dezake askatasun esperientzia bezala. Baketik-ek pertsona, erakunde eta gizarte mailan ardurak partekatzeko ideia hori proiektu zehatzen bidez zabaltzen du.

3. PROIEKTU ZEHATZAK

Xede sozialaren definiziotik bi ondorio ateratzen dira. Alde batetik, lau galdera horien erantzunek bere buruari galderak egiten dizkion pertsonarengan edo erakundean eragina izango dute. Bestetik, lantze hori elkartasunaren eremu zehatzean erabaki edo konpromiso gehigarriak ekar ditzake (EKG). Baketik-en proiektuak zentro honek bere xedeari laguntzeko erabiliko dituen tresnak dira eta bi talde horietan egituratzen dira: berezko funtzioarekin lotutako zerbitzuak eta bere *elkartasun-konpromiso gehigarrian* kokatutako programak.

3.1. BEREZKO FUNTZIOA: ZERBITZUEN ESKAINTZA

Pertsona, erakunde eta gizarte mailako eraldatze-prozesuak bultzatzera zuzendutako zenbait zerbitzuen eskaintzan zehatzen dira. Zerbitzu horiek bost eremutan sailkatzen dira.

• **Pertsonen eta familien zuzendutako zerbitzuak.** Pertsona da abiapuntua. Baketik-ek bizitza eta bizikidetzara hobetzen ikaslea, betiere etika hartuta abiapuntu, helburu duten aholkularitza-eta formazio-zerbitzuak eskaintzen ditu. «Nor bere buruarekin eta besteekin bizitzeko ikastaroen programa» izenburua hartzen du proiektu horrek. Bizikidetasun pedagogia garatzen du lehen pertsonan eta bizikidetzaren esparru txikietan. Modu osagarrian eta ikastaroen programarekin lotuta, eguneroko bizimoduaren zailtasunekin eta aukererekin lan pertsonala egiteko tailerren proposamena lantzen ari da.

• **Hezkuntza munduari zuzendutako zerbitzuak.** Geure burua eta besteak pertsona izaten hezteak. Baketik-ek Bizikidetasun pedagogiarekin bizitarako eta bizikidetzarako heztera zuzendutako baliabideak eskaintzen ditu. Ardatza Izan Proposamena da eta bere formazio-eskaintza irakasleei, familiei eta ikasleei zuzendua dago. Giza eskubideen urraketan biktimganako elkartasunari buruzko Bihotzetik modulu didaktikoarekin, elkarbizitarako zinemaren proposamena osatzen duen Bideoteka proiektuarekin, eta giza duintasuna ulertzeko esperientzia osatzen duen Antzerki Forumarekin osatzen da.

• **Bake prozesuaren esparruan eskaintutako zerbitzuak.** Bizikidetasun-kultura berri bat lehentasuna da Baketik-entzat. «Indarguneak» ekimenaren inguruan eratzen da. Ekimen hau urtero egiten dugun gogoetak proiektu ugari sorrarazi ditu:

berradiskidetzeari buruzko formazio- eta dibulgazio- eskaintza, Lokarri-rekin hitzarmena eta bizikidetza-politiken proposamen bat Udalentzat eta beste erakundeetara zabalik. Ekimen horiek hezkuntza eremuan eskaintzen diren zerbitzuekin osatzen dira.

·**Enpresei eta erakundeei eskaintako zerbitzuak.** Erakunde mailako eraldatzea da beste lehentasunezko esku-hartze eremu bat. Enpresei eta erakundeei zuzendutako aholkularitza- eta formazio-baliabideak eta sakotzeko tailerrak eskaintzen ditu. Bere esku dagoenetik abiatuta, ardurak partekatzeke elkartasun-eredu batera zuzendutako zentzu etikoaren esparru eraldatzailea eratzea eta partekatzea da bere helburua. Lanetik Ikastaroen eta Lanetik Tailerren eskaintzaren bidez eskaintzen da zerbitzu hau.

·**Gatazketan aholkularitza- eta bitartekaritza-zerbitzuak.** Gatazka eremu pribilegiatua da eraldatze-prozesuak bultzatzeko, etika hartuta abiapuntu. Baketik-ek aholkularitza, laguntza eta bitartekaritza eremuan lan-ildoak zabaltzen du. Erakundeei, enpresei, instituzioei eta entitateei gatazken eraldatzea eta talde-lana hobetzea bultzatzeko zerbitzua eskaintzen die. Zerbitzu honek zailtasunak etikoki lantzeko eta paradigma alternatiboak sortzeko neurriak egindako prozesuak diseinatzen ditu.

3.2. EKG: ELKARTASUN-PROGRAMAK

Xede soziala Baketik-eko elkartasun-konpromiso gehigarriari (EKG) edukia ematen dioten programetan zehaztu behar da. 2012ko udazkenean, ondorengoak dira:

·**Herri mailan, Izeba proiektua.** Baketik-ek babesik gabe dauden bertako nahiz atzerriko adingabekoen «osaba-izeba» izateko prest dauden pertsona edo familia boluntarioen sarea eratu du Gipuzkoan.

·**Gizarte eremuan, Dohain proiektua.** Baketik-ek egoera zailetan daudenei (gaixoak, droga-mendekotasunen bat dutenak, babesik gabeko adingabeak, presoak, urritasunak dituztenak...) prestakuntza-egonaldia egiteko eta atsedean hartzeko aukera eskaintzen die Arantzazun.

·**Nazioartean, Afrikandugu proiektuak.** Bi alderdi ditu. Alde batetik, elkartasunari eta lankidetzaren ereduak buruz gogoeta kritikoa egiten du, lankidetzarako senidetzaren irudia bultzatzen duen bitartean. Bestetik, errazte-, bitartekaritza- eta berradiskidetze-espertziak partekatzen ditu.

4. EUSKARRI OPERATIBOAK

Baketik-en proposamena eta egitasmoa zabaltzeak eta partekatzeak bideragarria egingo duten azpiegitura-babesen multzoa edukitzea eskatzen du. Horietako hiru lehentasunezko euskarriak dira.

4.1. JARDUERA EREDUA: ZORROZTASUNA, FIDELTASUNA ETA BERRIKUNTZA

·**Zorroztasuna antolaketan.** Baketik fundazio bat da. Patronatua, zuzendaritza-taldea, lan-taldea eta Gizarte Kontseilua ditu. Egitura horrek onartu egiten du Baketik bezalako zentro baten bideragarritasunerako ezinbestekoa dela planifikazio eta antolaketa zorrotzarekiko konpromisoa.

·**Xedearekin fideltasuna.** Baketik-en jardueraren ereduak malgua izan behar du testuinguru aldakorretara egokitzeko. Aldakortasun hori etikoa, berritzailea eta erabilgarria izan dadin behar-beharrezkoa da fundazio honen xedea definitzen duten oinarri sendoetan eta iraunkorretan oinarritzea. Baketik-en nortasunarekiko fideltasuna bere jardueraren ereduaren funtsezko osagarria da.

·**Berrikuntza etengabea.** Baketik-en xedearen eta nortasun propioaren fideltasunetik, egungo egoeran berrikuntza etengabea bideragarritasun-inperatiboa da. Baketik-en jardueraren ereduak berrikuntza etengaberako irizpidea urtero sistematizatzea bilatuko du: «urtero, gutxienez, berrikuntza bat». Bizi ditugun errealitate aldakorretara zabaltzea eta onartzea eta guztia zalan-zalan jartzeko askatasuna.

4.2. FINANTZIAZIO-EREDUA: AUTONOMIAREN ERRONKA ONARTZEA

Baketik-ek 2012. urtea zorrik gabe amaituko du. Hala ere, zailtasun-testuinguruari egin beharko dio aurre. Baketik bezalako erakunde batentzat ezinbesteko balioa da autonomia. Eta hori eraginkorra eta erreala izan dadin autofinantziazioa lehentasunezko helburua da. Baketik-en proiektuan lau gakoren garapeneraren menpe dago:

·**Kalitatea.** Kalitatezko baliabideak, proiektuak, ekimenak eta zerbitzuak Baketik-eko sei lan-eremuetan.

·**Gizarte sarea.** Proiektu hau osatu nahi duten bazkideen eta kolaboratzaileen sarea sendotzea.

·**Erabilgarritasuna.** Entitate publikoak edo pribatuak babes-tuak edo diruz lagunduak izatea merezi duten proiektu sozial erabilgarriak garatzea.

·**Zorroztasuna.** Zorroztasun ekonomikoan eta garapen zentzudunaren eredian oinarritutako ekonomia- eta baliabide-ku-deaketa garatzea.

4.3. PARTE-HARTZE EREDUA: KOMUNITATEA ERATZEA

Baketik-en egitasmoarentzat parte-hartzea beste lehentasunez-ko euskarria da. Zentro honek iritziak, parte-hartzea, dibulgazioa eta bideragarritasuna partekatzea ahalbidetuko duen Baketik-ekoa iza-teko nortasun-espazio propioa eta autonomoa eratu nahi du. Ere-mu partekatu horri parte-hartze komunitatea deitzen diogu. Zentro honek eskaintzen dituen parte-hartze bide nagusiak bost dira:

·**Parte-hartze zuzena.** Nahi duenak zabalik dauzka Bake-tik-eko ateak bere iradokizunak, kritikak, iritziak edo ekarriak egi-teko. Modu zuzenean kanalizatzen dira Baketik-eko ekimenetan parte hartuz edo posta elektronikoaren, web gunearen, bloga-ren bidez edo beste edozein bide erabilita.

·**Bazkideen sarea.** Baketik-en parte hartzeko modu bat bere egitasmoa diruz laguntzea da. Edozein kopururekin, maiztasunekin edo eperen barruan, edo proiektu zehatzen bidez egin daiteke.

·**Boluntariotza.** Parte-hartze modu hau Baketik-eko edozein ekimenetan edo proiektuetan dauka erabilera. Egitura mailan, batez ere Izeba Proiektuaren bidez gauzatzen da, babesik gabe dauden adingabekoen «osaba/izebak» izatea onartzen duten fa-milia eta pertsona boluntarioen sarea.

·**Izan Sarea.** Izan Hezkuntza Proposamena praktikan jartzeko eta garatzeko prest dauden ikastetxeen, hezitzaileen eta fami-lien sarea da. Proposamen hori hobetzeko eta horretan sakon-tzeko helburuarekin elkarrekin koordinatzeko, partekatzeko eta esperientziak, zalantzak edo iradokizunak trukatzeko sarea.

·**Gizarte Kontseilua.** Baketik-eko Gizarte-Kontseilua organo irekia da eta aholkularitza-, kontsulta- eta bultzatzaile-izaera dau-ka. Kontsoziazio-eremua da non Baketik-ek erabaki duen %50ean partekatzea bere egitasmoaren orientabide-, diseinu-, eta pro-mozio-erantzukizuna. Baketik-eko barne-organoek Baketik-e-ko urteko plangintzak definitzerakoan erabakitze-ahalmenaren %50a daukate. Gizarte-Kontseilua beste %50a ordezkatzeko duen parte-hartze eremua da.

BAKETIK

ERALDATZE PROZESUAK,
ETIKA HARTUTA ABIAPUNTU

BAKETIK-EN DEFINIZIOA

Baketik eraldatze pertsonalerako eta sozialerako prozesuak bultzatzen dituen fundazioa da, betiere etika hartuta abiapuntu.

IKUSPEGIA

Itxaropena: mundu bidezkoago baten alde egitea.
Helburua: baldintzak sortzea.

XEDEA

Aldaketa pertsonalerako eta sozialerako botere nagusiena bultzatzea: hautatzea etika hartuta abiapuntu.

HELBURU NAGUSIAK

-Etika hartuta abiapuntu, pertsona, erakunde, eta gizarte mailan eraldatzerako zerbitzuak eskaintzea.
-Bizitzeko eta bizikidetzarako modu berriak eta gizarte- eta garapen-eredu berriak eragitea.

BAKETIK-EN ZEHARKAKO ARDATZA

Bizikidetasun pedagogia. Sei urteko ezagutza eta Baketik-eko proiektuak uztartzen dituen euskarri pedagogikoa. Giltzarri batean oinarritzen da: pertsona inoren laguntzarik gabe hobetzeko eta bere errealitatea berreraikitzeke ahalmena duen izakia da. Ahalmen hori dauka hauta dezakeelako eta bizi dituen esperientzia nagusietatik ikas dezakeelako betiere etika hartuta abiapuntu. Bizikidetasun pedagogia oinarritzeko lau esperientzietan jartzen du arreta: izaera mugatua, esker ona, kontzientziari entzutea eta giza duintasuna; hiru instrumentaletan: elkarriketa, enpatia eta pazientzia; eta funtsezko bat: maitasuna.

BAKETIK-EN XEDE SOZIALA

Lau galdera oinarri hartuta definitzen da. Bere erantzuna Baketik-en berezko funtzioan du eragina eta elkartasun-konpromiso gehigarria sortzen du.

Non jartzen du muga	Non oinarritzen da	Zer dagokio	Zertan hobetzen du mundua
Apaltasuna nortasun-ezaugarri bezala.	Partekatzeke erabakian.	Bere konpromisoak hautatzea.	Ardura partekatzeke ideia bultzatzen du.

BAKETIK-EN BEREZKO FUNTZIOA: ALDAKETARAKO ZERBITZUAK ESKAINTZEA ETIKA HARTUTA ABIAPUNTU

Pertsona eta familiei zuzendutako zerbitzuak	Hezkuntza munduarentzat zerbitzuak	Bake-prozesuaren esparrurako zerbitzuak	Enpresentzat eta erakundeentzat zerbitzuak	Aholkularitza- eta bitartekaritza-zerbitzuak
·«Bizitzeko eta elkarbizitzarako» ikastaroen programa. ·Aholkularitza.	·Izan Proposamena eta Bihotzetik. ·Elkarbizitzarako zinema. ·Antzerki Forum-a.	·Elkarguneak ekimena. ·Udaleentzat proposamena. ·Gizartean zabaltzea.	·Lanetik ikastaroak. ·Lanetik tailerrak.	·Gatazkak. ·Taldea-lana.

EKG: ELKARTASUN-PROGRAMAK

Xede sozialak, berezko funtzioan eragiteaz gain, elkartasun-konpromiso gehigarria (EKG) edukiz beteko duten proiektu zehatzak behar ditu. 2012ko udazkenean, ondorengoak dira:

Herri mailan	Gizarte mailan	Nazioartean
·Izeba Proiektua.	·Dohain Proiektua.	·Afrikandugu Proiektuak.

EUSKARRI OPERATIBOAK

Jarduera-eredua	Finantziario-eredua	Parte-hartze eredua
·Antolaketa-zorroztasuna. ·Xedearekiko leialtasuna. ·Berritze etengabea.	·Kalitatea. ·Sare soziala. ·Baliagarritasuna. ·Zorroztasuna.	·Parte-hartze zuzena. ·Bazkideak. ·Boluntarioritza. ·Izan sarea. ·Gizarte Kontseilua.